

EHUko IKASLE KONTSEILUAK FINANTZAKETA NAHIKOA ESKATU DU UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN KOLAPSOA SAIHESTEKO

Ikasleen ordezkaritza-organoak Eusko Legebiltzarrean ohartarazi du infrafinantziazioak azpiegiturretan, zerbitzuetan, irakaskuntzaren kalitatean eta karrera akademikoan eragina duela.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 29a – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak agerraldia egin du gaur Eusko Legebiltzarreko Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Batzordean, ikasleek euskal unibertsitate publikoaren erronka nagusiei buruz duten ikuspegia azaltzeko, bereziki unibertsitatearen finantzaketan. "Mezua argia da, unibertsitate publikoa kolapsatzear dago finantzazio faltaren ondorioz: oso zahartuta eta hondatuta dauden azpiegiturretatik hasita, ondoren, unibertsitatearen zerbitzuak, eta, horrekin batera, irakaskuntzaren kalitatea eta karrera akademikoak", adierazi du Iñigo Ugedok, Ikasle Kontseiluko lehendakariak. Gaineratu duenez, "atzo ezagutu genuen hurrengo urterako egoera, eta are kezkarriagoa da, ez baita finantzaketa igoera erreala".

Oraina arriskuan jartzen duen arrakala

Ugedok gogorarazi du egungo inbertsioa BPGren % 0,42 ingurukoa dela, eta LOSUK 2030erako helburu gisa BPGaren %1eko finantzaketa duela erreferentzia gisa. "2024ko BPGan oinarrituta, 982.9 milioi eurokoa izango litzateke, gaur egun EHUk jasotzen dituen 402 milioi euroko finantzaketatik oso urrun", adierazi du.

Mantenu prebentiboa eta irisgarritasuna: oinarritzkoa aurrekontuan egon behar da

Ikasle Kontseiluak eraikinen egoeran eta mantentze eta ordezkapenerako partida egonkorrak bermatzeko beharrean jarri du fokua: "mantentzea egiturazkoa eta prebentiboa izan behar da, ez koiunturala", azpimarratu du Ugedok, itoginekin eta hezetasunekin, estalki eta pasabide zaharkituekin, eta fatxadetako zein teilatuetako zati-erorketekin lotuz, EHUko instalazioak egunero erabiltzen dituzten pertsonen segurtasunean eragina baitute.

Irigarritasun teknologikoa gaur egungo irakaskuntzaren gutxienekoaren parte da: ikasgeletan eta liburutegietan entxufe nahikoa eta Wi-Fi sare egonkorak. "Irakaskuntzak gailuak (ordenagailuak eta tabletak) eskatzen baditu, azpiegiturak horrekin batera etorri behar dira", adierazi du. Kontseiluak irigarritasun unibertsala ere azpimarratu du (igogailuak, arrapalak, seinaleztapena, ikasgelak eta zerbitzu egokituak), inor atzean gera ez dadin.

Ikasketei eusten dioten zerbitzuak

Ikasleek Arreta Psikologikoko Zerbitzua indartzea eskatu dute, gaur egun infrafinantzaketak eta eskari handiak direla eta, tentsionatuta baitago. Baita desgaitasuna duten ikasleei laguntzea ere (interpreteak, ebaluazio-egokitzapenak, laguntza-teknologiak eta denbora errealistak praktikan eta azterketetan). Gainera, ohartarazi dute epe kritikoetan, aurrekontu-arrazoiengatik, liburutegiak eta ikasketa-gelak ixteak baliabiderik gabe uzten dituela behar handiena duten pertsonak.

Irakaskuntza-kalitatea eta langileen baldintzak

Kontseiluak ikasgelan gertatzen denaren kalitatea irakasle eta ikertzaileen egonkortasunarekin eta baldintzekin lotu du. "Irakasleen soldata eta egonkortasuna sektore publikoko beste kidego batzuen parean ez badaude, besterik gabe, eskolak emateko edo bajak estaltzeko irakaslerik gabe geratuko gara. Geratzen direnek, azkenean, dagokiena baino ordu gehiago hartzen dituzte beren gain, eta horrek esan nahi du denbora gutxiago dutela eskolak behar bezala prestatzeko, tutoretzak eskaintzeko edo ikasturtearen jarraitutasuna bermatzeko", azaldu du Ugedok.

Unibertsitate-autonomia eta euskal sistema

"Unibertsitate-autonomia finantzaketa nahikoa dagoenean baino ez da lortzen. Unibertsitate sisteman, unibertsitate publiko bakarra eta hiru pribatu dauden —horietako bat, gainera, irabazi-asmokoa—, unibertsitate publikoak bidezko finantzaketa behar du lehiakor eta bermatzaile izateko".

Ikasleriak eskatzen duena

Kontseiluak talde parlamentarioei eskatu die 2030erako BPGaren %1era heltzeko bide argia ezartzea; Arreta Psikologikorako Zerbitzua eta desgaitasuna duten ikasleen laguntza bezalako funtsezko zerbitzuak lehenestea, behar adinako langile eta ordutegiak; eta irigarritasuna zein digitalizazioa irizpide zeharkako bihurtzea, EHUKo aukera-berdintasuna bermatzeko. "Izan ere, Euskadin unibertsitate-ikasleen hamarretik zazpi EHUn ikasten dugu. Beraz,

unibertsitate publikoaren presentzia bidezkoa eta eraginkorra izan behar da, eta publikoaren balioa erakunde pribatuei dagozkien edozein merkatu-logikaren aurretik jarri behar da”, ondorioztatu du Ugedok.

EHUko Ikasle Kontseilua